

BABESOLA

DROGAMENPEKOTASUNAREN

PREBENTZIORAKO

BABES FAKTOREAK

LANTZEKO

LH3. mailarako PROGRAMA

Egilea: **Maite Franko**, idazle, ipuin-kontalari eta pedagogo. 686.686.094

Programaren aurkezpena

Sarrera

Esku artean duzun *Babesola* heziketa programa Zarauzko Udaleko Prebentzioa Sailak Maite Franko ipuin kontalariari eskatuta 2012ko udan sortutakoa da. Kontalari honek aurretik *Berdinola I eta II* martxan jarriak zituen (*Berdintasuna* lantzeko antzeko programak) bai Zarautzen bai Hernanin ere, oso balorazio onak jasoz.

Oraingo honek, *Babesolak* berriz, LH3. mailako umeengan drogamenpeketasunaren prebentziorako babes faktoreak lantzea eta jarrera osasungarriak bultzatzea du helburu nagusia. Programa honetan berriz, ez da inoiz drogen inguruan hitz egiten: drogaren kontsumora eraman edota haiengandik aldentu arazi gaitzaketen arrisku eta babes faktoreak dira lanketaren ardatza.

Babesolaren metodologiari dagokionez, *Berdinola I eta II* ren bera da: Maite Frankoren ipuin kontaketa saioak entzun eta saio hauen aurretik eta ondoren ipuinetako edukiak irakaslearekin lantzea, horretarako propio sortutako 4 unitate didaktikoen bitartez.

Alabaina, LH3rako diseinatuta dagoen arren, LH4, 5 edota 6rako ere balioko luke zenbait egokitzapen txiki eginda.

Azkenik aipatu, beherago ikusiko duzuen bezala, babes faktore eta jarrera osasungarri hauen lanketak drogamenpeketasunaren prebentziorako bakarrik ez, aurrerago, nerabezaroan edo, garatu litezkeen beste jarrera problematiko askori aurrea hartzeko ere balio izango ligukeela, hala nola: erasoak, lapurretak, *bullying* delakoa...

Nor da Maite Franko ipuin-kontalaria?

Maite Franko (Irun-Hondarribia, 1971), *txipiroi-arrantzale* eta *lehorreko lamia* baten zazpigarren alaba da. **Antzerkigintza, irakaskuntza, bikoizketa** eta **literaturaren** ur handietan oinak bustitakoa dugu. 2004 urteaz geroztik, **ipuin-kontalaritzaren** ozeano barean dabil, orduetik hona 1.700 saio inguru eskainiz. Bertan, ahoz aho ibilitako ipuinak, argitaratu berriak zein egileak berak sortutakoak jolas, asmakizun eta dramatizazioekin nahasten dira, barruan umore, misterio, "mezu positiboak" eta kresala ugari daramatzatelarik.

Haren inguruko informazio gehiago www.ttiklik.com webgunean aurkituko duzue, gurasoentzako sortua den webgune honetan *oparipuinak* izenez batailatu dituen *oparitarako ipuin pertsonalizatuak* musu-truk idazten baititu.

Programaren edukiak

Programa osoa eratzeko orduan, prebentzioan egon litezkeen **babes faktore nagusiak** hartu dira kontuan, bi multzotan kokatuta:

1. *Ispiluaren aurrean*: Norberaren ezagutza eta hobekuntza
2. *Besteen aurrean*: Gizarte trebeziak

Multzo bakoitzari, beraz, bina unitate didaktiko egokitu zaizkio. Kontaketa saioak ere berdin banatu dira, hau da, multzo bakoitzeko bana. LH3ko umeek, beraz, bina saio jasoko dituzte, saio bakoitzean hiru ipuin entzunez.

Jarraian, edukien erlazioa multzoka. Gure programa xumeegia da denak sakonki lantzeko (baita guztiak sartu ahal izateko ere). Hala ere, eduki asko izan arren, eta gehienak ia bizitza osoan zehar garatzekoak, oso egokia iruditu zaigu azaletik bada ere txikitatik jorratzen hastea.

I. multzoa: Ispiluaren aurrean

Norberaren ezagutza eta hobekuntzaren barruan, honako eduki eta helburu hauek kokatu ditugu:

- Auto-irudia, auto-estimua, konfiantza, nor bere buruaren onarpena.
- Emozio eta bultzaden kontrola, hausnarketari bidea ematea.
- Aisialdia eta janariarekin lotutako ohitura eta zaletasun arriskutsuen kontzientzia hartzea.
- Autonomia, ekimena, erabakiak hartzea.
- Lana eta arduraren aldeko apustua; tranpen kontrako jarrera.
- Bizitzeko grina, ikasteko eta ezagutzeko, hobetzeko motibazioa.
- Eta abar.

II. multzoa: Besteen aurrean

Gizarte trebeziei dagokienez berriz, honako hauek egongo lirateke:

- Komunikazioa oro har: elkarri entzutea, ulertzea eta bestearen lekuan jartzea (enpatia).
- Norberaren iritziak eta eskubideak lasaitasun eta segurtasunez azaldu eta defendatzea (Asertibitatea).
- Jarrera apatiko eta erasokorrak detektatu eta baztertzeko saiakera (asertibitatea, berriz!)
- Talde presioaren eragina norberaren erabaki, jarrera eta ohituretan.
- Taldearen estimua baino bilatzen ez duten norberaren ekintzak.

- Eta abar.

Edukien lanketa eta programaren egitura

Edukiak lantzeko beraz, ipuinak eta material didaktikoa izango ditugu.

- Ipuin-kontaketa saio bakoitzean, hiru istorio entzuteko aukera izango dute, bakoitzak eduki bati helduko diolarik.
- Unitate bakoitzari ere eduki bat edo bi egokituko zaizkio.

Bestaldetik, erabiliko ditudan ipuin guztiak, bat kenduta, nik sortutakoak dira, interesatzen zaizkigun mezuak ageriago gelditzeko.

Unitate didaktikoetako dinamikei dagokienez ere, era askotakoak izango dira: gelan bakarka zein taldean egitekoak; etxean gurasoekin egitekoak; auzoan, galdetegien bitartez informazioa jasotzekoak, jolas modukoak, hausnarketa ariketatxoak, sormenezkoak, eta abar.

Programaren egitura, honako hau da:

I. Multzoa: Ispiluaren aurrean:

- A) 1. unitatearen lanketa.
- B) 1. kontaketa saioa.
- C) 2. unitatearen lanketa.
- D) 1.eta 2. unitateen kontrol orria.

II. Multzoa: Besteen aurrean:

- E) 3. unitatearen lanketa.
- F) 2. kontaketa saioa
- G) 4. unitatearen lanketa.
- H) 3. eta 4. unitateen kontrol orria
- I) Programa osoaren ebaluaketa

Ebaluaketa

Programaren erdian eta bukaeran, irakasleei kontrol orritxo bat pasako zaie, eta bertan, (x batekin erantzuteko moduko galdetegi labur baten bitartez), azalduko lukete egindakoa eta ikusitakoa: umeengan ikusitakoa (jarrerak, iritziak, ezagutza maila, kontzientziario maila ..), materialaren erabilpen maila (zer dinamika egin duten, zein ez eta zergatik), eta materialaren egokitasuna. Horrela, bi helburu beteko genituzke:

- Alde batetik, programak izan ditzakeen gabeziak edo akatsak konpondu ahal izango genituzke.
- Bestaldetik, irakasleen inplikazio eta konpromiso maila handitu egingo genituzke.

Bukaeran, balorazio galdetegi bat beteko lukete (aurrekoa bezain labur eta eroso) programa bere osotasunean aztertuz: ipuinen egokitasuna, interesa, kontatzeko era, materialen egokitasuna, lortutako emaitzak, zailtasunak, iradokizunak, ...

Babesola programaren aurrekontua

Programaren aurrekontua kalkulatzeko, parte hartuko lukeen gela kopurua jakin beharko genuke, gela bakoitzak bina saio jasoko lukeelarik. **Eskatu inolako konpromisorik gabe 686.686.094ra deituta edo maitefranko@hotmail.com-era idatzita.**